

## Hizlaria

Pedro Ibarra Güell

Politika- eta administrazio-zientzietako  
Katedraduna.

Informazio-zientzietan Doktore.



## POLITIKA

*Oroimen Kolektiboaren Berreskurapenari buruzko 8. foroan politika gaia jorratzen dituzten atalak aztertu genituen, Pedro Ibarraren laguntzaz.*

*Gonbidatuaren ustez, Laudio eta beste herrien artean ez dago alde handirik. Bere hizketaldia asteko, liburuan agertzen diren eta gehiago garatu beharko liratekeen hainbat gai proposatzen ditu.*

*Aipatzen duen lehenengo gaia eta, ziur aski, interesgarriena, "politika-hedapen sareak isiltasunean". Nahiz eta dokumenturik ez egon, jakin badakigu existitzen zirela, hortik agertu baitziren zazpigarren hamarkadako aukera politikoak. Bai bere esperientzia, bai irakurritakoa oroituz, "mendiaren kontua" gogoratzen du eta han egiten zen politika sinbolikoaz hitz egiten du.*

*Garatu beharreko beste gai batzuk iradokitzen dizkigu: Elizaren papera politika frankistaren garapenean, sindikalismoa, Trantsizioa (batez ere jarrera-hartze politikoak eta honek eragiten dituen hausturak eta liskarrak), auzoko asoziazionismoa (eta hauengandik sortuko diren herri ekimenak), zazpigarren hamarkadako grebak eta hauen eragina Laudion...*

*Lana irakurtzean bi gai berezi topatu zituen eta deigarri gertatu zitzaizkion: Alde batetik, ezker abertzalea zazpigarren hamarkadako aukera politiko bakarra zela ulertzen du. Ez dator bat honekin eta berrikustea proposatzen du. Bestetik, sindikalismo independentea indar handia izan omen zuen Laudion, honekin bat dator eta gehiago garatzea proposatzen du.*

*Aholku ugari eman ostean, bere hizketaldia bukatutzat ematen du honako esaldi honekin: "analisi bete eta zehatza da, iturri onekin egina eta, zalantzarik gabe, balioztatzea merezi duena."*

## JENDEAREN PARTE HARTZEA

*Eztabaidari gizon batek ematen dio hasiera honako proposamen honekin: alderdi politiko guztiek iraganari buruzko hausnarketa egin beharko lukete. Esaldi honek, gaur egungo egoera politikoaz eztabaidatzera eramaten ditu bertaratutakoak.*

*Ondoren, bertaratutako batzuk zazpigarren hamarkadako bigarren erdialdean eman ziren mugimendu asanblearioak deskribatzen dituzte, herriaren ezaugarri berezia, Pedro Ibarrenaren ustez. Dirudienez, Laudio hainbat sektoretan banatu zen eta hauetako bakoitzean arazoak eztabaidatzen ziren. Sistema honetan, erabakiak asanbladetan hartzen ziren, ondoren osoko bilkura ospatu baino lehen egiten zen bileran mahaigaineratzen ziren eta, azkenik, erabaki hauek udaletxeko osoko bilkuran eztabaidatu eta berresten ziren.*

*Laudiok daukan beste berezitasun bat bere garapen politikoan topa dezakegu: ezaugarri*



*antzekoak dauzkaten beste herriekin alderatuz, adibidez Ermua, nahiz eta biztanleri kopurua antzekoa izan eta industrializazioa aldi berean bizi (honek ekarri zuen inmigrazioa barne), han sozialistak nagusi dira, Laudion, aldiz, abertzaleak.*

*Proposamen hauek, bai hizlariarenak bai bertaratu zirenenak, lanean jarraitzeko aholkurik onena dira, politikan aditua eta "laudion adituak" diren gizonengandik baitatoz.*